

## CIC energiGUNE eta Tekniker, Flow Batteries Europe elkartearen bazkide sortzaileak

- Joan den apirilaren 28an era ofizialean formalizatutako elkarte horren helburua redox fluxuaren industria bultzatzea da, EBk klimaren eta deskarbonizazioaren inguruan dituen konpromisoak betetzen lagunduko duen balio-kate eraginkorra garatzeko.
- Europako 16 erakunderekin batera, Tekniker eta CIC energiGUNE, BRTAko kideak, elkartearen kide sortzaileak dira. CIC energiGUNE, gainera, Zuzendaritza Batzordeko kidea da.

(Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 13an)

[CIC energiGUNE](#)k, baterietan, energia termikoko soluzioetan eta hidrogenoan erreferente den euskal ikerketa-zentroak, eta [Tekniker](#)rek, Fabrikazio Aurreratuko teknologietan, Azaleren Ingeniaritzan, Produktu Ingeniaritzan eta IKTetan espezializatutako zentro teknologikoak –biak Basque Research & Technology Alliance-[BRTA](#)ko kideak–, Flow Batteries Europe elkartearen sorreran hartu dute parte. Europako 16 erakundek osatutako elkarteak *“European deskarbonizazioa bizkortzean, redox fluxu-baterien bidez energia biltegitartzeko soluzioen hedapena areagotuz”* egingo du lan.

Flow Batteries Europek hiru helburu ditu: fluxu-baterien teknologiak eta horien balio-katea garatzeko aukerak sortzea, Europako finantzaketa-programetan teknologiararen garapena sustatzea eta negozio-aukerak sortzen laguntzea. Apirilaren 28an egindako sorkuntzako batzarrak 9 eragilek osatutako Batzorde Betearazlea hautatu zuen, besteak beste. Horien artean egongo da Raquel Ferret Negozio Garapeneko zuzendaria CIC energiGUNE ordeztuz. Kargu hauek ere hautatu ziren: presidentea (Volterion, Kees van de Kerk), presidenteordeak (Alexander Schönfeldt, CellCube; Tobias Janoschka, Jena Batteries eta Paul Vollant, Largo Resources) eta diruzaina (Guillaume Chazalet, Kemiwatt).

“Europa azkar lekutu behar da fluxu-baterien esparruan, Asiak eta Ipar Amerikak abantaila handia baitute I+G arloan eta merkataritza jardueran”, adierazi du Raquel Ferret CIC energiGUNEko Negozio Garapeneko zuzendaria. “Aliantza hau martxan jartzeak aukerak aprobetxatzea eta Europa mailan balio-kate eraginkor bat zehaztea ahalbidetuko digu”.

Ildo beretik, Unai Eletxigerra Teknikerreko ikertzaileak ekimen horren garrantzia azpimarratu du eta sorkuntza-taldean BRTAko bi kide egotea nabarmendu du. “Aukera paregabea da teknologia honen aurrean abantailazko posizioa hartzeko”, ziurtatu du.

Flow Batteries Europe bi helburu nagusirekin sortu zen. Batetik, fluxu-baterien teknologien abantailak sustatzea eta Europako hornidura-kateari laguntzea; eta, bestetik, fluxu-baterien

balio-katearen garapena eta hedapena bizkortzea eta teknologia zabaltzea, EBko legediaren, finantzaketaren eta energia biltegitratzeko proiektuen bidez.

Era berean, irabazi-asmorik gabeko nazioarteko elkarte honek Europako eta munduko deskarbonizazioan aurrera egin nahi du, energia biltegitratzeko soluzioen bidez, fluxu-baterien teknologian eta eraginkortasun- eta segurtasun-ezaugarrietan oinarrituta.

Une honetan, Flow Batteries Europe 5 ikerketa-zentrok (CIC energiGUNE, Tekniker, CENELEST, Paduako Unibertsitatea, ZHAW), 5 industria-enpresak (CellCube, InEnergy, Largo Clean Energy, Voith, W.L. Gore eta elkartuak) 5 start-upek (JenaBatteries, KEMIWATT, Pinflow Energy Storage, Vanevo, Volterion), eta elkarte batek (Vanitec) osatzen dute. Hala ere, erakundeak dei egin nahi izan die fluxu-baterien teknologiak era aktiboan sustatzeko interesa duten Europako erakunde industrial eta instituzional guztiei, Flow Batteries European sar daitezen, Europako klima-helburuak eta deskarbonizazioa lortzeko apustuaren barruan.

#### **CIC energiGUNEri buruz**

CIC energiGUNE Europako erreferentziazko ikerketa gunea da energia biltegitratzearen arloan. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren arlo horretako ekimen estrategikoa da, eta Arabako Foru Aldundiaren eta Energiaren Euskal Erakundearen laguntza ere badu, eta energiaren eta biltegitratzearen sektoreko Euskadiko enpresa nagusiak ditu bere patronatuan: IBERDROLA, CEGASA PORTABLE ENERGY, SENER, SIEMENS-GAMESA, ORMAZABAL, IDOM, SOLARPACK, MONDRAGON KORPORAZIOA eta NORTEGAS.

Horrez gain, CIC energiGUNE Europa hegoaldeko energia biltegitratze arloko erreferentziazko laborategia da, beste inon ez dauden instalazioak baititu. Horien artean, biltegitratze elektrikorako (automoziarako egoera solidoko bateriak barne) eta biltegitratze termikorako prototipatu eta testatze azpiegiturak azpimarratu behar dira. 600 argitalpen zientifikotik gora ditu eta urtean 40 industria proiektu baino gehiagotan hartzen du parte.

#### **Teknikerri buruz**

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Azaleren Ingeniaritzan, Produktu Ingeniaritzan eta fabrikaziorako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b bidez gizarte osoari hazkundera eta ongizatea ematea du helburu, enpresa-sare osoaren lehiakortasunari modu iraunkorrean lagunduz. Tekniker, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kidea da.

---

#### **CIC energiGUNE kontaktua:**

Javier Palacios (MBN Comunicación) / javierpalacios@grupombn.com / 628538199

#### **Tekniker kontaktua:**

Eider Lazkano (GUK Comunicación) / [eider@guk.es](mailto:eider@guk.es) / 620807344

